

Felipe Maya, gizon zabala

Antxotarrok Historia Mintegia

Hiltzen da eta karrikako zalapartatik urrun bizi izan delako ia herritarren arteko ez daukagun gizon hura pertsona landua zela jakiten dugu, hiriburuko Ateneoko idazkaria, gutun eta artikulu bitartez heriotzaren dolua agertzen duten lagunak zituena... Irakurri al duzu...? Badirudi... Ez nekien!

Herri guztietan daukagu horrelako norbait, bizitza hildakoan erakusten duena.

“Berexi” horietako bat genuen Felipe Maya.

Karrikako zalapartatik urrundua ez ezik isil samarra –hitzurria ez esateagatik–, ezezagun handien zerrendan geneukan. Era klasikoan janzteko ohitura zuen –jaka, alkandora, krabata ere bai sarritan, neguan berokia trajearen gainean–, eta horrek aldendu egiten zuen gainerakoon arrunkeriatik. Eraman behar zuen makilak halako ukitu dandy bat eman izan ez balio, notarioa zela esan genezakeen, edo bankuko zuzendaria, edo epailea, lagunkerian ezin jausi zitekeen pertsonaia horietakoren bat, daukan mailari zor diona nolabaiteko isolamenduaz ordaindu behar duena. Uste izatekoa da berak ere halaxe nahi izatea, lotsatia zenez eta multzokeriarenganako izutia. Haatik, bere itxurak eta bere uzurtasunak besterik adieraz zezakeen arren, Felipe Maya iritsigarria, heldugarria zen oso: gai zen edozein pasaitarren zuhaitz genealogikoa osatzeko diosala baten aitzakian.

Horrelako bitxikeriak garbiki ematen du aditzera, besteak beste, ez ziola muzin egiten herri xeheari, eta gure iritzian alderdi honek badauka muntarik,

Felipe Mayak bai baitzeukan, ikasketa unibertsitarioei erantsia, letretako karreretan hartzen ahal dena baino goragoko kultura, irakurketa asko eta luzeren bitartez jaso. Bada esaldi bat... Ez al da Tolstoirena harako zera...? Betegarri gertatu gabe, erakuskeriarik gabe, solasaren atseginagatik baizik, hartutakoa ordainduz. Zeukan jakinduriagatik, murgiltzen ahal zen gai handietan, letra larrizko historia esaten zaion horretan. Nahiago izan zuen historia apalean saiatu, baztertutako horretan, ohiko tratatuetan ikertzen ez diren kontuetan, nahiago izan zuen bertako historia, herri xumearen iragana duintasunez azaldu. Aldizkari honetan egingakoak daukagu adibide.

Horrelakoxea ezagutu genuen Antxotarrok Historia Mintegian, ilusio handiz bertu zuen asmoan, datuak ekarri, jakinaraziz, zuzenduz, erdi esate batean adieraziz, ironia erabiliz... Alegia, guk ez daukagun jakinduria zeukan, baina besteri ematekoa: eskuzabaleko jakintsua zen, “berexia” zen horretan ere.

Ondare bibliografiko garrantzitsua utzi digu Felipe Mayak.

Baina are garrantzitsua goa da utzi digun eredu: espanturik gabeko lana eta zuhurtasun historikoa.

Felipe Maya, erudito generoso

Muere, y aquel hombre ignorado por alejado de bullicio callejero resulta ser una persona culta, secretario del ateneo de la capital, con amigos que lamentan su desaparición en cartas y artículos. ¿Has leído...? Parece



que... ¡No lo sabía! En todos los pueblos hay alguien así, alguien que descubre su vida cuando muere.

Felipe Maya era uno de esos "raros".

Alejado del bullicio callejero y más bien callado, por no decir taciturno, fue un gran desconocido. Su gusto por el vestir clásico –chaqueta, camisa, muchas veces corbata, abrigo sobre el traje en invierno– lo distinguía del común popular. Si no fuese porque su bastón le daba un cierto aire dandy, diríase notario, director de banco, juez... un personaje de esos que no puede permitirse excesivas familiaridades, que tiene que pagar su rango con cierto aislamiento. Es muy probable que él lo quisiese así, en una mezcla de timidez y de horror por la muchedumbre. Sin embargo, Felipe Maya fue una persona de fácil acceso, porque, en con-



Felipe Maya junto a otro antxoarra ilustre recientemente fallecido, autor del estudio sobre los órganos de las iglesias gipuzkoanas, D. José M^a Zapirain.

tra de lo que su apariencia y su retraimiento pudieran dar a entender, conocía perfectamente a sus paisanos, a todos: con la excusa de un saludo era capaz de trazar el árbol genealógico de cualquier pasaitarra.

Este detalle, entre otros muchos, demuestra que no era ajeno a la vida digamos pueblerina, aspecto sumamente destacable en quien tenía, además de formación universitaria, una cultura muy por encima de lo que se adquiere en una carrera de letras. Hay una frase... ¿No es de Tolstoi aquello de...? Sin empalagar, sin exhibicionismo, disfrutando y haciendo disfrutar de la conversación. Por sus conocimientos podía haberse dedicado a la historia que se dice con mayúscula, a los grandes temas. Prefirió dedicarse a la historia menor, a la marginada, a la divulgación de sucesos y hechos que no entran en los tratados al uso, a la dignificación de la historia local. Buen ejemplo de ello son sus colaboraciones en esta revista.

Así es como lo conocimos en *Antxotarrok Historia Mintegia*, ilusionado en un proyecto que lo asumió como propio, informando, corrigiendo, aportando material, insinuando, ironizando... es decir, lo conocimos como un erudito, pero un erudito generoso. También en eso fue "raro".

Felipe Maya nos ha dejado un importante legado bibliográfico.

Pero más importante es su ejemplo: discreción, trabajo y criterio histórico. ■

